

Integrauto proiektua, automoziorako material berriak.

2010/06/18

Ekainaren 16an Mondragon Goi Eskola Politeknikoak lideratzen duen Integrauto proiektuaren bigarren jarraipen bilera izan zen Andalteceko egoitzan Jaenen.

Ekitaldian automobilen sektorearekin lotura duten hainbat enpresa garrantzitsu elkartu ziren. I

naugurazioan honako hauek hartu zuten parte: Manuel Gabriel Perez, Andaluziako Juntako Ekonomia, Berrikuntza eta Zientzia saileko delegatua, José Maria Navarro, Andaluziako Plastikoen Zentro Teknologikoko gerentea, Ruben Cuesta, Martoseko Udaleko ordezkaria eta David Peña, Teknia enpresako I+G Zuzendaria.

Ekitaldian proiektuaren egoera azaldu zen. Integrauto proiektua Zientzia eta Berrikuntzako Ministeritzak finantzatu du eta proiektu berritzaile honen helburua automoziko konponenteen balio erantsia gehitzea da frogagailu baten laguntzaz. Honek konponenteen diseinua hobetzea eta pisua gutxitzea ahalbidetzen du materiale eta teknologia berriak erabiliz.



Financiado por:
Ministerio de Ciencia
e Innovación

Cofinanciado por:
Fondo Europeo de
Desarrollo Regional
(FEDER)

